Hemen daukazue Jose Miguel Barandiaranen biografía. Lehenengo irakurri, ondo ulertu eta gero, erantzun egokiena aukeratu.

JOSE MIGUEL BARANDIARAN (1889-1991)

1988ko Urtezahar egunean jaio zen Ataunen, Gipuzkoan. Apaiza, etnografo eta arkeologo ospetsua izan zen. Berari esker, mundu osoan dira ezagunak euskaldunen ohiturak, sinesteak eta bizimoldeak, historiaurretik gaur arteraino.

Gaztea zenetik, ikerketak egin zituen baso-mendietan zehar haitzuloetan eta trikuharrietan. Adibidez, Santimamiñeko leizezuloa (Bizkaian), Jentiletxe haitzuloa (Gipuzkoan), eta Aizkomendi trikuharria (Araban).

Etnografiari dagokionez, informazio asko jaso zuen bizimolde tradizionalei buruz. Adibidez, *Anuario de Eusko Folkrore* eta *Eusko Jakintza* agerkariak sortu zituen. Ia 100 urte zituenean, *Mitos del pueblo Vasco* liburua argitaratu zuen. 1991ko abenduaren 21ean hil zen. Baina lanean aritu zen, heriotzako momentura arte. Hamar egun bakarrik falta zitzaizkion 102 urte betetzeko.

HIZTEGIA

- Urtezahar eguna: Nochevieja
- Etnografía: Ciencia que estudia diferentes pueblos y culturas
- Agerkariak: publicaciones
- Argitaratu: publicar

1. **Non jaio zen?**
   - Gipuzkoako herri batean.
   - Arabako herri batean.
   - Bizkaiko herri batean.
2. **Zertan egiten zuen lan Jose Miguelek?**
   - Baserritarra eta apaiza zen.
   - Apaiza eta etnografoa zen.
   - Arkeologoa zen.
3. **Non egin zituen ikerketak?**
   - Santimamiñen Bizkaian.
   - Zugarramurdin Nafarroan.
   - Aizkomendin Araban.
4. **Bere lan baten izenburua markatu:**
   - Mitos del Pueblo Vasco.
   - Arotzaren eskuak.
   - Bisitari Bitxia.
5. **Zenbat urteekin hil zen?**
   - 101 urteekin hil zen.
   - 100 urteekin hil zen.
   - 102 urteekin hil zen.